



# ERRETERIAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA PUNTUALA. HURRENGO ESKU-HARTZE UNITATEEI ETA AREARI DAGOKIENA:

14/12: Miguel Alduntzin 1, 2, 3, 4, 6

14/15: Pablo Iglesias 13 - R. María Azkue 14

14/16: Pablo Iglesias 15 - R. María Azkue 16

eta 22 AREA: AGUSTINAK

## BEHIN BETIKO ONESPENENKO DOKUMENTUA

---

**EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAK,  
2007ko MAIATZAREN 3an,  
HARTUTAKO ERABAKIA BETETZEKO DOKUMENTUA**

**2007ko MAIATZA**

---

ERRETERIAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Udal Bulego Teknikoa  
Oficina Técnica Municipal

---

**HAPOren 2. ALDAKETA PUNTUALAREN ERREDAKZIO-TALDEA:**

Errenteriako Udal Bulego Teknikoa:

Enrique Ponte Ordoqui, Udal Arkitektoa  
Udal Bulego Teknikoko Zuzendaria

Vicente Castiella Castiella, Udal Aholkulari Juridikoa  
Iñaki Ibarbia Etxeberria, Arkitekto Teknikaria  
Javier Cambroneru, Delineazioa  
Arantza Ezeiza Zabala, Testu-tratamendua

---

ERRETERIAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Udal Bulego Teknikoa  
Oficina Técnica Municipal

---

AURKIBIDE OROKORRA

---

A DOKUMENTUA:       MEMORIA  
B DOKUMENTUA:       INFORMAZIO PLANOA

---



## AURKIBIDEA

---

ERRETERIAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA PUNTUALA  
ONARTZEKO ETA TRAMITATZEKO PROZESUA ..... 1

1. HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA KOMENTUAREN BALIZKO ARKEOLOGIA GUNEA (AGUSTINAK).

7/1990 LEGEAREN, EUSKAL KULTURA ONDAREARI BURUZKOAREN, 49. ARTIKULUAREN  
ARABERAKO MUGAK ETA BABESA

PLANOA ..... 1/2.000 eskala

---



1. ERRENTERIAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA PUNTUALA  
ONARTZEKO ETA TRAMITATZEKO PROZESUA

**A.**

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2007ko otsailaren 23an, behin-behineko onespena eman zion 14/12 EU: Miguel Alduntzin 1, 2, 3, 4 eta 6 zk.; 14/15 EU: Pablo Iglesias 13 – Resurrección Maria Azkue 14; 14/16 EU: Pablo Iglesias 15 – Resurrección Maria Azkue 16 eta 22 Area: Agustinak unitateei buruzko “Plan Orokorraren 2. Aldaketa Puntualari”.

Espedientea Eusko Jaurlaritza bidali ondoren, Lurralde Antolamendurako Batzordeak, batzorde bereko Gipuzkoako Hirigintza Planeamendurako Atalak, 2007ko maiatzaren 3an, hurrengo erabakia hartu zuen:

1. Lurralde Antolamenduko gaietan. Eragozpenik ez jartzea Errenteriako “14/12 EU: Miguel Alduntzin 1, 2, 3, 4 eta 6 zk.; 14/15 EU: Pablo Iglesias 13 – Resurrección Maria Azkue 14; 14/16 EU: Pablo Iglesias 15 – Resurrección Maria Azkue 16 eta 22 Area: Agustinak unitateei buruzko” Plan Orokorraren 2. Aldaketa Puntualaren” espedienteari. Txostenaren alderdi lotesleak ondorengo legeetan ezarritakoarekin bat datozelako: 2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa; 4/1990 Legea, Lurraldearen Antolamenduari buruzkoa eta 5/1993 Legea, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko legea aldatzekoa.
2. Kultura Ondareko gaietan. Hirutasun Guztiz Santua Komentuaren Balizko Arkeologia Gunea dagoela jasotzea. Dagokion planoan seinalatuz eta mugak zehaztuz, aipaturiko Ebazpenean jasotakoaren eta 7/1990 Legearen (Euskal Kultura Ondareari buruzkoa) 49. artikulua emandako babesaren arabera.

**B.**

Dokumentu hau idatzi da Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen erabakia betetzeko, espedienteari eransteko eta Errenteriako HAPOn 2. Aldaketa Puntualaren behin betiko onespeneri ekiteko.

Memoria honek eta “Hirutasun Guztiz Santua Komentuaren Balizko Arkeologia Gunea (Agustinak)” irudikatzen duen planoak osatzen dute honako dokumentu hau.



2. HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA KOMENTUAREN BALIZKO ARKEOLOGIA GUNEA (AGUSTINAK).  
7/1990 LEGEAREN (EUSKAL KULTURA ONDAREARI BURUZKOA) 49. ARTIKULUAREN  
ARABERAKO MUGAK ETA BABESA.

2.1.

22 Area: Agustinak eremuan dago Hirutasun Guztiz Santua Komentuaren Balizko Arkeologia gunea (Agustinak), aitorpenaren 12. eremuari dagokiona.

Errenteriako Balizko Arkeologia Guneak, aipaturikoa barne, Balizko Arkeologia Gune izendatzeko espedientea ireki zen, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeak, 1997ko irailaren 11n, emandako ebazpenaren bidez (1997ko urriaren 30eko EHAO, 208 zk.).

Hainbat zantzu eta iturriren arabera, pentsatzekoa da leku horietan arkeologia aztarnategia egon litekeela, baina ez dago horien egoera eta interes-mailaren berririk. Ondorioz, eta aipaturiko aitorpenari jarraiki, toki horietan egingo den edozein jarduketak orubearen balioari eta proiektuaren eraginari buruzko azterlana izan beharko du. Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztuko du, proiekturik egin behar izanez gero, horren hedadura.

2.2.

Arkeologia Ondarearen ezaugarri bereziak eta berezko izaera kontuan harturik, 7/1990 Legeak, era berean, babestu behar izan zituen balizko arkeologia hondakinak dituzten guneak. Hala ere, ezin izango dira gune horiek monumentu izendatzeko espedienteak ireki oraindik azterketa arkeologikorik egin ez delako eta horien benetako tamaina eta ezaugarrien datu zehatzik jasota ez dagolako. Horrelako gune bakoitza dagokion aitorpenak zehaztutakoa izango da eta aitorpena Kultura, Gazteria eta Kirol Sailordetzak emandako ebazpenaren bidez gauzatu da; beti ere, espediente bakoitza tramitatu ondoren, urriaren 8ko 234/1996 dekretuan ezarritakoaren arabera (Balizko Arkeologia Guneak Finkatzeko Araudia ezartzeko dena).

Horrenbestez, arkeologia hondakinak egon litezkeen guneetan egin nahi diren obren sustatzaile eta jabeek erantsi beharko dute horien balio arkeologikoari eta obra proiektuan izan dezakeen eraginari buruzko azterlana. Aipaturiko legearen 49. artikulua eta urriaren 8ko 234/1996 Dekretuak (Balizko Arkeologia Guneak finkatzeko araudia ezartzeari dagokionean, Kultura Ondareari buruzko Legearen araudia betetzekoa) hala behartuta. Ondoren, Foru Aldundiaren eskumena izango da arkeologia proiektua beharrezkoa den ala ez erabakitzea, obra lizentzia aurreko baimena emateko.

Era berean, balizko arkeologia aitorpenek eragindako guneak txertatu beharko dira udal planeamendua osatzen duten hirigintza araudian aurreikusitako monumentuak kontserbatzeko eta hobetzeko katalogoetan.

ERRETERIAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Udal Bulego Teknikoa  
Oficina Técnica Municipal

---

Errenteria, 2007ko maiatza  
Udal Arkitektoa  
Udal Bulego Teknikoko Zuzendaria

Enrique Ponte Ordoqui